

KOMUNIKATUA, ZENBAIT UNIBERTSITATETAKO KLINIKA JURIDIKOEN BATERAKO EKINTZARI BURUZKOA (ALCALÁKOA, COMILLASKO ELIZ UNIBERTSITATEA —ICADE—, DEUSTUKOA, MADRILGO EUROPARRA, MIGUEL HERNÁNDEZ, OVIEDOKOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, SALAMANCAKOA, VALÈNCIAKOA ETA VALLADOLIDEKOA)

Harrigarria iruditzen zaigu, dirudienez, COVID-19aren pandemiak gizaki guztiak berdintzea bizitzarako eta osasunerako arriskuari dagokionez. Birusak denok infekta gaitzake. Baina horretan bakarrik gara denok berdinak. Hasierako errealitate horren ondoren, desberdintasuna berriro ere agertzen da, eta muga sakonagoak ezartzen dira aberatsen eta pobreen artean, bertakoen eta etorkinen artean, oldarkorren eta horien indarkeriaren biktimen artean. Ez, denok ez ditugu berdin pairatuko COVIDa eta horren ondorioak. Krisialdia zein larria den jakinik, etorkizunak asko kezkatzen gaitu. Nola egongo gara? Nor izango gara?

Eta gertatzen ari den guztia ez da Espainiako unibertsitateetako klinika juridikoetatik kanpo geratzen.

Espainiako hamar klinika juridikok (zehazki, honako unibertsitate hauetakoak: Alcalákoa, Comillasko Eliz Unibertsitatea —ICADE—, Deustukoa, Madrilgo Europarra, Miguel Hernández, Oviedokoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Salamancakoa, Valènciakoa eta Valladolidekoa) **baterako ekintza** bat abiarazi dute, **zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen eskubideak babesteko eta defendatzeko tresna egokiak emateko** eta sortu diren zailtasunei aurre egiteko. Irakasle batzuek ere bat egin dute ekimen horrekin, bana-bana.

Gure asmoa zera da, zuzenbidea hurbiltzea COVID-19aren ondorioak pairatzen ari diren baina egoeraren inplikazio juridikoak ulertzeko gakoak zein diren, jasaten ari garen neurriek zer esan nahi duten eta zenbaterainoko irismena duten ez dakiten pertsonengana. Parte hartzen duten 44 ikasleek –hainbat unibertsitateetakoak– eskura dituzten edo eskuratu ditzaketen tresna juridikoei buruzko informazio ulergarria jarri nahi dute gizartearen eskura, euren ikaskuntza eta zerbitzuaren bidez.

Ekintza hori gidaliburu batean zehaztuko da, krisi honetan sortzen ari diren arazo juridikoei buruz ez dakitenei erantzun ulergarriak emateko. Gida honek malgua eta hurbila izateko jomuga du, gatazkei benetako erantzuna emateko gai den zuzenbide atseginagoa behar duen ororentzat.

Ahultasun pertsonaleko eta egiturazko ahultasuneko egoera berezi honetan ikasleak eta irakasleak pertsonen onura ekarriko dien jardura batean inplikatzeko ikasketa juridikoen eta unibertsitatearen funtzio sozial nabarmena garatzea ahalbidetzen die horiei. Sintonia hori eta distantzian elkarrekin egin beharreko lana antolatze gaitasuna balioetsi egin behar da unibertsitate bizitzan, krisi honek dirauen bitartean hobe izango den gizarte bat sortu nahi badugu.

Hori dela eta, komunikatu honen bidez, inplikaturako unibertsitateetako klinika juridikoei euren gain hartutako ekimen honen berri eman nahi diegu gure unibertsitatei eta haien gertueneko inguruneari. Horrekin batera, gure unibertsitatei eskatu nahi diegu ekimen honen berri eman dezaten, zabaldu eta babesteaz gain.

COMUNICADO SOBRE LA ACCIÓN CONJUNTA DE LAS CLÍNICAS JURÍDICAS DE LAS UNIVERSIDADES DE ALCALÁ, PONTIFICIA COMILLAS ICADE, DEUSTO, EUROPEA DE MADRID, MIGUEL HERNÁNDEZ, OVIEDO, PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, SALAMANCA, VALÈNCIA Y VALLADOLID

Parece sorprendernos que la pandemia del COVID-19 iguale a todos los seres humanos en el riesgo para la vida y la salud. El virus puede infectarnos a todos. Pero solo en esto somos todos iguales. Tras esa realidad inicial, la desigualdad vuelve a estar presente trazando fronteras más profundas entre ricos y pobres, entre autóctonos e inmigrantes, entre los violentos y sus víctimas... No, no todos vamos a sufrir igual el COVID y sus consecuencias. La conciencia de la gravedad de la crisis lleva de la mano la preocupación por el día después. ¿Cómo estaremos? ¿Quiénes seremos?

Nada de lo que está pasando resulta ajeno a las Clínicas Jurídicas de las Universidades españolas.

Diez Clínicas Jurídicas españolas (Universidades de Alcalá, Comillas ICADE, Deusto, Europea de Madrid, Miguel Hernández, Oviedo, País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Salamanca, València y Valladolid) han puesto en marcha una **acción conjunta** con la finalidad de facilitar **instrumentos adecuados para la protección y defensa de los derechos de las personas en situación de vulnerabilidad** y hacer frente a dificultades que han ido surgiendo. A esta iniciativa se han sumado también algunos profesores a título individual.

Nuestra intención es acercar el Derecho a quienes padecen las consecuencias del COVID-19 pero desconocen las claves para comprender las implicaciones jurídicas de la situación y el significado y alcance de las medidas a las que nos encontramos sometidos. Los 44 estudiantes que participan, provenientes de diferentes Universidades, quieren poner al alcance de la sociedad, a través de sus procesos de aprendizaje y servicio, información comprensible sobre las herramientas jurídicas que tienen o pueden adquirir.

La acción se va a concretar en una guía donde se pueda encontrar una respuesta comprensible para el profano a problemas jurídicos que están surgiendo durante esta crisis. Esta guía quiere ser flexible y cercana para todo el que necesite de un Derecho más amigable y capaz de dar respuesta real a los conflictos.

Involucrar a estudiantes, profesores y profesoras en una actividad de la que se beneficien personas en esta especial situación de vulnerabilidad personal y estructural permite desarrollar la evidente función social de los estudios jurídicos y de la universidad. Esta sintonía, así como la capacidad de articular un trabajo conjunto en la distancia, deben ponerse en valor en la vida universitaria para construir una sociedad mejor durante esta crisis.

Por ello, mediante este comunicado queremos dar a conocer, a nuestras Universidades y a su entorno más cercano, esta iniciativa adoptada en el seno de las Clínicas Jurídicas de las Universidades implicadas. Con ello, queremos, también, invitar a nuestras Universidades a que se hagan eco de esta iniciativa, la difundan y la apoyen.